

editoriala / editorial

SANTIAGO ERASO

la nabarmendu gabe, Arteleku nahitaez erreparatu beharreko errealtatea izatea lortu dugu, gaurrengungo artearen ikuspegitik begiratuta. Poliki-poliki artegile haundiak gerturatu eta programa garrantzitsuak osatu ditugu, eta dagoeneko aitzindariak garela esan dezakegu Herri Administrazioak sormena eta beronekin batera derrigorrezkoa den hausnarketa bultzatzeko daraman ihardunaren barruan.

Jokaera hauxe da gure nortasunaren ezaugarria, eta gertakarien aurrean behin eta berriz hausnarketa egitera eta jokabide berriak eta egokiak hautatzera behartzen gaitu.

Artelekuren sorreran funtsezko zutabea izan ziren zenbaitek jarri zuten erabaki politikoa eta beste zenbaitek jarritako jakituria profesionala. Bi alde hauek uztarturik osatu bait zen oinarri-oinarrizko ideia sendo hura. Etorkizunari begira martxan jarritako estrategia hura, denbora igaro ahala, errealtate egitera iritsi zaigu. Hasierako fase hartan sortu sen "Zehar, Artelekuren informazio aldizkaria".

Maya Aguirianok gidatu zuen hasiera hartan, eta, dudarik gabe, haren nortasunarekin, eta izaerarekin bat eginik moldatua dago Zehar. Hori horrela da. Ez dira alferrik joan bi urte luze eta hamasei zenbaki.

Orain, zalantzaren ilunbidetik atera ondoren eta Artelekuren etorkizunean konfidantza jartzeak eman digun babesaz, Zehar-en sasoi berri bati ekitera goaz.

Muga zabaletan barrena ibili nahi dugunez gero, lankide berri batzuei zabaldu dizkiegu erredakzioko ateak. Seguru gaude, duten profesionaltasunari esker, ezaugarri, ideia eta asmo berriekin aberastuko dutela Zehar.

Ongi etorri, Adelina Moya, Joxemari Iturralde eta Francisco Javier San Martín.

Silenciosamente hemos conseguido que Arteleku se haya constituido en una referencia obligada en el contexto del panorama del arte contemporáneo. Poco a poco, hemos ido incorporando al proyecto personalidades y programas que nos han colocado al frente de las nuevas iniciativas emprendidas por la Administración Pública en el desarrollo de la creación y la reflexión que la acompaña.

Esta forma de hacer, que se ha convertido por sí misma en una señal de identidad, nos obliga a repensar constantemente los acontecimientos y a actuar en consecuencia.

En el origen, apoyándonos en una sólida idea que sigue siendo patrimonio de un grupo de personas que, en su momento, aportaron su decisión política y sus conocimientos profesionales, Arteleku articula una estrategia de futuro que poco a poco se irá transformando en realidad. En esta primera fase se sitúa el nacimiento y posterior desarrollo de "Zehar, Boletín informativo de Arteleku".

Maya Aguiriano inicia su andadura y construye para Zehar una historia que se vincula fuertemente a su figura y a su personalidad. Esto está ahí. Han sido más de dos años y dieciséis números.

Ahora, pasados los malos augurios de la incertidumbre y arropados por la confianza depositada en el futuro de Arteleku, iniciamos una nueva etapa en la vida de Zehar.

Nuestra ambición nos permite abrir las puertas de la redacción a nuevos colaboradores que, desde su reconocida profesionalidad, aportarán a "Zehar" una nueva personalidad, nuevas ideas y proyectos.

Bienvenidos, Adelina Moya, Joxemari Iturralde y Francisco Javier San Martín.

1992ko Abuztua

Agosto, 1992